



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	AIXERROTA					KODEA: 015109	2015 - 2016		
ARLOA	HISTORIA						DATA		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 3	DBHO 1	DBHO 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
<p>Gertaera garrantzitsuak azaltzea eta aztertzea, objetiboki baloratzuz. Euskal eta espainiar ordena ekonomiko eta politikoa ezagutzea. Eskubide demokratikoak, giza eskubideak eta bakea babestea. Prozesu nagusiak osotasunean ulertzea, horien arteko harremanak ikusiz. Prozesu historiko garrantzitsuenen erreferentzia Europar historiaren testuinguruan aurkitzea. Metodo zientifikoaren osagaiak ulertu eta aplikatzea.</p>	
(oharra) Gutxiengo helburuak mintegian ondo zehaztuta izango ditugu..	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	1.Sarrera, Erregimen Zaharraren ezaugarriak eta krisia. Cadizko Gorteak eta 12ko konstituzioa	3. Errestaurazioaren sistema politikoa. Industrializazioa, langileen mugimendua eta nazionalismoa Euskal Herrian.	5. Francoren Diktadura: oinarri politikoak , oposizioa, ekonomía eta gizartearen aldaketa. Diktadura frankista Euskal Herrian.
	2. Liberalismoaren eraikuntza. Foruak eta Liberalismoa: gerra karlistak eta foruen abolitze prozesua.	4. II. Errepublika: 31ko konstituzioa eta erreformak. Euskal Herriko egoera errepublika garaian eta Gerra Zibilean.	6. Trantsizio politikoa: 78ko konstituzioa eta Gernikako estatutua.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
<p>Irakaslearengandik jasotako informazioarekin batera (azalpenak, bideoak, testu liburua,...) ikasleek prozedurak landuko dituzte (testu iruzkinak, ardatz kronologikoak egin eta komentatu, mapak eta abar) . Testu iruzkinak lantzeko eta zuzentzeko IKT- ko teknologia berriak erabiliko ditugu. Prozesu historikoen eta oinarrizko gertakarien azalpena eta eskemen garapena. Hipotesiak formulatu eta esplikatu. Gertaerak eta prozesu historikoak kronologikoki kokatu. Hiztegi egokia eta oinarrizko kontzeptuak erabili eta aplikatu. Gertaera nagusiak testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoan kokatu. Bere balorazio eta kritika bultzatzea.</p>	



4	BALIABIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> ■ Testu liburua ■ beste testu batzuk ■ bideoak ■ mapak ■ ordenagailua ■ kanoia. 	
TESTU LIBURUA: <i>Vicens Vives Historia 2, batxillerrerako</i>	
5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTZeko TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>Ebaluazio irizpideak: Espainiaren eta Euskal historia osatzen duten prozesu azpimarragarrienak ia menperatzen duten.</p> <p>Gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak ia ezagutzen dituzten.</p> <p>Prozesu historikoetan gertatzen diren aldaketak eta irauten duten gauzak azaltzen dituzten faktoreak ulertzen duten, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate- aniztasunaz ia ohartzen duten .</p> <p>Baloratu, oinarritzko kontzeptu eta termino historikoak ulertzen eta egokiro erabiltzen duten.</p> <p>Egiaztatu ikasgaiaren edukiak egokiro adierazten eta azaltzen badakiten.</p> <p>Ikusi lehen eta bigarren mailako testu historikoen iruzkinak egiteko gauza diren.</p> <p>Frogatu egungo gizartearen ezaugarrien, gatazken eta erronken jatorri historikoa ia ezagutzen duten.</p> <p>Azterketak: Azterketetan teoria eta praktika (iruzkina) egongo da, eta azterketa gaindituta izateko galdera biak erantzunda egon beharko dira. Ebaluazio bakoitzean azterketa bat gutxienez egingo dugu. Azterketa bat baino gehiago egin ezker, nota batz bestekoa izango da baldin eta egindako azterketa guztietan 3 puntu edo gehiago lortzen bada.</p> <p>Oharra: etxean zein gelan egindako lan guztiak (iruzkinak, sintesiak, lantxoak ...) derrigorrezkoak izango dira jakingaia gainditu ahal izateko.</p> <p>Azterketa egunean, bere ez etortzea justifikatzen duenak aukera izango du azterketa egiteko beste talde batekin, posible izango balitz, edo bestela ahozko azterketa egingo zaio.</p>	
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
<p>Ebaluazioa arruntak gainditu ez dutenek azterketa egin beharko dute. Ebaluazio osoko materiari buruzko azterketa.</p> <p>Berreskuratzeko azterketaren egitura hauxe izango da: gai bat (notaren %50a) eta testu iruzkina (%50a).</p> <p>Testu iruzkinak ez aurkezteagatik ebaluazio negatiboa dutenek, faltatzen zaizkien testu iruzkinak aurkeztu beharko dituzte berreskuratu ahal izateko.</p> <p>Edozein kasutan 4,5 edo gehiagoko nota dutenek laguntza neurrien bidez gainditzeko aukera izango dute.</p> <p>Ohiko ebaluazioan, maiatzean ebaluazio bakarria suspendituta daukatenek ebaluazio horri dagokion azterketa egin beharko dute. Bi ebaluazio edo hiru suspenditu ezker aparteko materia osoko azterketa izango dute.</p>	